



**Gipuzkoako enpresen tamaina  
Europako Batasunean**

- **Gipuzkoako enpresen dentsitatea Europar Batasuneko baina handiago da, baina enpresak txikiagoak dira**
- **Gipuzkoan sei lanpostutik bat enpresa handietan sortzen da; Europar Batasunean, berriz, bikoitza**

Egoitza soziala Gipuzkoan duten enpresak, merkataritzako jarduera ekonomikoak egiten dituztenak, ez-finantzaketakoak (merkataritzakoak ez diren zerbitzuak, finantzaketa zerbitzuak, eta lehenengo sektorea kanpo), 54.000 dira (Eustat, 2007). Hortaz, Gipuzkoako enpresen dentsitatea mila biztanleko ia 80 enpresakoa da.

Europar Batasuneko (EB-27) enpresen dentsitatea, berriz, askoz txikiagoa da. Bertan, ia 20 milioi enpresa daude (Eurostat, 2005), eta enpresen dentsitatea Gipuzkoarenaren erdia da, gutxi gorabehera.

Gipuzkoako enpresen dentsitatea enpresen jarduera maila handiena duten Europako herrialdeen maila berean dago, hala nola Txekia edo Portugalen pare. Ikus daitekeen bezala, ez dago harreman zuzenik adierazle horren eta garapen eta oparotasun ekonomikoaren indizeen artean.

Enpresen batez besteko tamainari dagokionez (enpresa bakoitzeko lanpostu kopurua), Gipuzkoan txikiagoa da, eta batez beste, enpresa bakoitzean 4 langile daude. Europar Batasunean, berriz, enpresa bakoitzean 6,4 langile daude, batez beste.

Illo horretatik, Gipuzkoako enpresen %94 mikroenpresak dira (10 langiletik behera dituzten enpresak), %5 enpresa txikiak (10etik 49 langilera bitartekoak), eta %1, berriz, enpresa ertainak eta handiak. Gipuzkoako mikroenpresen ehunekoak Europar Batasuneko batez bestekoa baino handiagoa da (Europar Batasunean, hain zuzen, guztizko enpresa kopuruaren %92 mikroenpresak dira).

**La dimensión de las empresas guipuzcoanas  
en el ámbito de la Unión Europea**

- **La densidad empresarial en Gipuzkoa es claramente superior a la de Unión Europea, aunque las empresas tienen un menor tamaño**
- **Uno de cada seis empleos se genera en las grandes empresas guipuzcoanas, la mitad que en la Unión Europea**

El número de empresas con sede social en Gipuzkoa y con actividad económica mercantil no financiera (no incluye servicios no mercantiles, servicios financieros y sector primario) es de 54.000 (Eustat, 2007). La densidad empresarial guipuzcoana es de casi 80 empresas por mil habitantes.

Esta densidad es muy superior a la de la Unión Europea-27, en la que las cerca de 20 millones de empresas existentes (Eurostat, 2005) representan una densidad de aproximadamente la mitad de la existente en Gipuzkoa.

La densidad empresarial guipuzcoana se sitúa al nivel de los países europeos con mayores índices de actividad empresarial, como son la República Checa y Portugal. Como puede observarse, no existe una relación directa entre este indicador y los índices de desarrollo y prosperidad económica.

El tamaño medio, medido en número de empleos por empresa es más reducido en Gipuzkoa, de 4 personas ocupadas por empresa, cifra que se incrementa hasta 6,4 para el conjunto de la Unión Europea.

En este sentido, el 94% de las empresas guipuzcoanas son microempresas (no alcanzan la cifra de 10 empleos), el 5% pequeñas (de 10 a 49 empleos) y el 1% medianas y grandes. La presencia porcentual de microempresas en Gipuzkoa supera a la media de la Unión, territorio en el que alcanzan una participación del 92% sobre el total.



Kontuan hartu diren enpresa motek sortzen dituzten lanpostuei dagokienez, mikroenpresek Gipuzkoako lanpostuen %40 sortzen dituzte. Europar Batasunean, berriz, hamar puntu gutxiago (%30).

Europar Batasuneko herrialdeen artean, Grezia, Italia eta Portugal Gipuzkoaren gainetik daude mikroenpresek sortzen dituzten lanpostuei dagokienez.

Aurkako muturrean, berriz, Gipuzkoako enpresa handiek (249 langiletik gora dituztenek) lanpostuen %16 sortzen dituzte. Europar Batasunean, berriz, ehuneko bikoiztu egiten da (%32).

Hori dela eta, enpresa handiek lanpostu gehiago sortzen dituzten europar herrialdeak Eslovakia, Erresuma Batua, Finlandia eta Alemania dira. Horietan, guztizko lanpostu kopuruaren %40 enpresa handiek sortzen dituzte, gutxienez ere.

Centrando el análisis en la generación de empleo por los distintos tipos de empresa considerados, las microempresas generan el 40% del empleo guipuzcoano, porcentaje que supera en diez puntos a la media de la Unión Europea.

Entre los países miembros de la Unión Europea, Grecia, Italia y Portugal superan a Gipuzkoa en la aportación a la ocupación total por parte de las microempresas.

En el extremo opuesto, las grandes empresas guipuzcoanas (de más de 249 empleos) dan ocupación al 16% del empleo, porcentaje que se duplica en la Unión Europea.

En este sentido, los países europeos en los que el volumen de empleo generado por las grandes empresas es más elevado, son Eslovaquia, Reino Unido, Finlandia y Alemania, en los que la aportación de las mismas el empleo total alcanza, como mínimo, el 40% del empleo total.



- **Gipuzkoan industria jarduerak garrantzi handia du, batik bat enpresa txiki eta ertainei dagokienez**
- **Zerbitzuetako enpresa handi eta ertain gutxi daude**

Merkataritzako jarduera ekonomiko ez-finantzaketakoaren analisiaren esparruan, egoitza soziala Gipuzkoan duten enpresen artean, industriaren sektorearen eskaintza nabarmendu daiteke. Hain zuzen ere, Gipuzkoako lanpostuen %40 sektore horretako enpresek sortzen dituzte. Europar Batasunean, berriz, hamar puntu gutxiago (%30).

Industriak, beraz, Europan baino garrantzi handiagoa du Gipuzkoan. Zerbitzuetako jarduerak, berriz, garrantzi txikiagoa dute, batik bat merkataritzak, garraioak eta komunikazioek.

Egoitza Gipuzkoan duten industriaren sektoreko enpresen tamainari eta sortzen dituzten lanpostuei dagokionez, enpresa txiki eta ertainek duten eragina nabarmendu daiteke (10 eta 240 langile arteko enpresak). Hain zuzen ere, lanpostuen %59 enpresa horiek sortzen dituzte. Handiei dagokionez, berriz, lanpostuen %27 sortzen dituzte, eta mikroenpresek, %14.

Europar Batasunari dagokionez, industriaren sektoreko enpresa txiki eta ertainek pisu txikiagoa dute, eta lanpostuen %45 enpresa horiek sortzen dituzte. Enpresa handiek, berriz, pisu handiagoa dute. Gainerako sektore nagusiei dagokienez (eraikuntzaren eta zerbitzuen sektoreak), enpresa handiek Gipuzkoan duten pisua Europar Batasunean dutena baino askoz txikiagoa da.

Izan ere, Gipuzkoari dagokionez, eraikuntzaren sektoreko lanpostuen %1 eta zerbitzuen sektoreko lanpostuen %9 baino ez dituzte sortzen enpresa handiek. Europar Batasuneko ehunekoak, berriz, askoz handiagoak dira: %12 eta %30, hurrenez hurren

- **Gipuzkoa destaca por la relevancia de su actividad industrial, concentrada en las pequeñas y medianas empresas**
- **Reducida presencia de medianas y grandes empresas de servicios**

En el marco del análisis de la actividad económica mercantil no financiera destaca, en las empresas con sede social en Gipuzkoa, la oferta del sector industrial, que alcanza una participación del 40% en el empleo total, diez puntos porcentuales superior al de la Unión Europea.


Esta mayor relevancia industrial se compensa con la menor incidencia de las actividades de servicios, principalmente del comercio y del transporte y las comunicaciones.

Por lo que se refiere a la dimensión de las empresas industriales con sede en Gipuzkoa y el empleo generado por las mismas, destaca la incidencia de las empresas pequeñas y medianas (entre 10 y 249 empleos) que proporcionan el 59% de la ocupación, en tanto que las grandes ofertan el 27% y las microempresas el 14%.

En términos comparativos con la Unión Europea, debe resaltarse el menor peso en la Unión de las empresas industriales pequeñas y medianas (45% del empleo total), compensado con una mayor aportación de las grandes.

En los restantes grandes sectores, construcción y servicios, la incidencia de las grandes empresas es muy inferior en Gipuzkoa con relación a la Unión Europea.

En efecto, únicamente el 1% del empleo en la construcción y el 9% del empleo en los servicios es generado por las grandes empresas en Gipuzkoa. Estos porcentajes son muy inferiores a la media de la Unión Europea, territorio en el que se cifran en el 12% y 30%, respectivamente.





• **Informazio iturriak:**

**Eurostat**

Enterprises by size class - overview of SMEs in the EU

Argitaratutako azken informazioa: 2008ko apirilaren 8a

[http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY\\_OFFPUB/KS-SF-08-031/EN/KS-SF-08-031-EN.PDF](http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-SF-08-031/EN/KS-SF-08-031-EN.PDF)

**Eustat**

Jarduera Ekonomikoen Katalogoa

Argitaratutako azken informazioa: 2008ko apirilaren 24a, 2008-05-02

(gaztelania)

<http://www.eustat.es/estad/temalista.asp?tema=145&idioma=c&opt=0>

(euskara)

<http://www.eustat.es/estad/temalista.asp?idioma=e&tema=145&opt=0&tipo=1&mas=&otro=>

• **Fuentes de información:**

**Eurostat**

Enterprises by size class - overview of SMEs in the EU

Última información publicada: 8 de abril de 2008

[http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY\\_OFFPUB/KS-SF-08-031/EN/KS-SF-08-031-EN.PDF](http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-SF-08-031/EN/KS-SF-08-031-EN.PDF)

**Eustat**

Directorio de Actividades Económicas

Última información publicada: 24 de abril de 2008-05-02

(es)

<http://www.eustat.es/estad/temalista.asp?tema=145&idioma=c&opt=0>

(eus)

<http://www.eustat.es/estad/temalista.asp?idioma=e&tema=145&opt=0&tipo=1&mas=&otro=>